

IKASLEEN IRTEERA PROFILA

Ikastolako komunitateak adostutako balioetan oinarri, eta beti ikasleen nahi eta beharrak erdigunean jarri, ondoren laburbiltzen dugun irteera profila lortzera bideratzen ditugu gure ahaleginak. Horrela, ikastolan gure ikasleek ondorengo bere egitea bilatzen dugu pertsona moduan euren bidea eraiki dezaten.

- 1. Norbera izaten jakingo dut.** Neure indargunez eta mugez kontziente izanik, mugak gainditzeko jantzi. Arazoei irtenbideak bilatzen saiatuko naiz, emozioak ahalik eta erarik egokienean kudeatuz eta zailtasunen aurrean positiboki jardunez, neure bizi-proiektuaren bilakaera autonomiaz garatzeko moduan egoteko.
- 2. Ezberdinen artean lan egiteko gai izango naiz.** Nire iritzia emanez eta besteenak errespetuz entzunez, adostutako ideiak aurrera eraman, hartutako ardurak bete eta proiektu berriak eraikitzekeo gai izango naizelako.
- 3. Konpetentzietan aritua.** Jakinminez, ikasketa prozesuaren jabe izanda, etengabe urratsak emanez; egoera anitzen aurrean estrategia ezberdinak erabiliz, etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai izango naizelako, norberaren ametsak garatzeko trebatuta nagoelako.
- 4. Gizartean eta bizitzan aurkitzen diren egoera desberdinen aurrean enpatiazko jarrera eta konprometzua izango dut.** Gizartearen gatazkak ulertuz, oinarri historiko nahiz egungo ezaugarri buruzko ikuspuntu anitzak onartuz (arraz, adin, pentsaera, joera sexual, ezaugarri fisiko/psikologiko... bat edo beste izan), genero berdintasunean oinarrituta eta aniztasuna aberastasun moduan ulertuz, gizarte justuago baten alde eragiteko moduan nagoelako.
- 5. XXI. mendeko gizarte honetan, oinarritzko beharrian teknologikoei aurre egiteko prestatuta nago.** Gure egunerokotasunean, teknologia digitalak erabiliz (proiektuak egiteko, informazioa kudeatzeko eta partekatzekeo) aurrerakuntza teknologikoak era orekatu, kritiko eta eraginkorrean erabiltzeko gai naizelako.
- 6. Euskara eta euskal kulturarekin konprometitua nago.** Mundura zabalik eta kulturen aniztasuna aberastasun moduan ulertuta, gure eguneroko ekimenetan Euskal Herriko kultura ezagutuz eta maitatuz, euskara erabiliz, euskal kultura sustatu eta zainduko duen herritarra izango naizelako.
- 7. Euskara ardatz, nire euskalkiaren jabe eta eleaniztasunarekin aberastuta nago.** Ahoz zein idatziz egoera bakoitzak eskatzen didan hizkuntza egoki erabiliz, euskaraz eta gaztelaniaz adierazpen bikainaz eta ingelesez zein frantsesez dagokidan maila lortuz, ezberdinen artean azaltzen jakiteko eta elkar ulertu ahal izateko jantzita izango naizelako.
- 8. Mundu aldakor honetan, pertsona orekatua naiz, osasun ohitura onak izanda.** Gogoko dudako jarduerak fisiko zein mentalaz gozatuz, emozioak ezagutu eta kudeatzen jakinda, lasaitasunez, errespetuz eta enpatikoki neure buruarekin eta inguruarekin gustura izateko eta maila pertsonal eta kolektiboan oreka eta kalitateko biziera bilatzeko moduan nagoelako.
- 9. Iritzi propioa eta zentzuduna izango naiz.** Iraganeko zein gaur eguneko gertaerak aztertuz, informazioa baloratuz, argumentu koherenteak sortuz eta pentsaera propioa eraikiz, bizitzako etengabeko erabakiak modu kontzientean eta koherentean hartzeko gai naizelako.
- 10. Gizartearen parte izango naiz, kide aktiboa gainera.** Herritik mundura, denon onerako oinarriekin ulertuta ekinean, eta gizarte mugimenduetan konpromisoz auzolanean parte hartuz, ingurugiro jasangarri baten alde arituz, gizarte ongizatearen hobekuntza lortzeko ekimenetan murgilduko naizelako.